



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bilboko Udala

Bilboko Gobernu Batzordearen 2024ko abenduaren 18ko Hitzarmenaren laburpena, hurrengo arloan diru-laguntzen deialdia egiteko dena. Garapenerako lankidetza giza-eskubideak 3 ar Garapenerako nazioarteko lankidetza, hainbat urtetarako programak Gastu arrunta. BDNS (Identif.): 803950.

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/803950>)

Bat. – Onuradunak

Egoitza nagusia edo ordezkari finkoa Bilbon (dokumentu-bidez egiaztatuta) daukaten elkarte eta dirua irabazteko asmorik gabeko entitateak izango dira. Euren helburuetan garapenerako nazioarteko lankidetza agertzea beharrezkoa da.

Bi. – Helburua

Garapenerako nazioarteko lankidetza, hainbat urtetarako programak: helburu nagusia gastu arrunta dutenak bultzatzea.

Hiru. – Oinarri arautzaileak

Bilboko Udalaren eta zuzenbide publikoko bere erakundeen eta entitateen deialdiaren bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautuko dituen Ordenantza Orokorra (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 138 zk., 2016-07-20koa).

Lau. – Zenbatekoa

Deialdi honetarako zenbatekoa hurrengoa da: 2025eko aurrekontua: 70.000,00 euro 2026ko aurrekontua: 70.000,00 euro 2027ko aurrekontua: 70.000,00 euro Guztira: 210.000,00 euro Diruz laguntzeko kontzeptuari aplikatzeko erregimena norgehiagoka da. Gehienezko diru-kopurua programako: 70.000 euro urtero (210.000 gehienez guztira).

Bost. – Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu osteko hurrengo egunean hasi eta 2025eko otsailaren 21an amaituko da.

Sei. – Beste datu batzuk

Landuko den programa bakoitzaren edukia azaltzen duen dokumentu bat; dokumentu horretan, gainera, aurkeztutako gastu-aurrekontua zehatz-mehatz azaldu behar da, Garapenerako Nazioarteko Lankidetza proiektuei laguntzeko eskabidearen inprimakia (2025. Urtea) deritzon ereduaren arabera.

Bilbon, 2024ko abenduaren 18an.—Giza Eskubideak, Bizikidetza, Lankidetza eta Kulturartekotasun Saileko Zinegotzi ordezkaria, Iñigo Zubizarreta Aguirrezabal